

"Elhuyar zientzia eta teknologiaren hiztegi entziklopedikoa" aurkeztuko da ostegunean Hernaniko Chillida-Lekun

Elhuyar Fundazioak eta Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) "Elhuyar zientzia eta teknologiaren hiztegi entziklopedikoa" argitaratu dute elkarlanean, Euskadiko Kutzaren babesarekin, eta ostegunean aurkeztuko dute, 18:30etan, Hernaniko Chillida-Leku Museoan (Gipuzkoa).

Bere arduradunek aurreratu dutenez, zientzia eta teknologiaren euskarazko lehen hiztegi entziklopedikoa osatzeko, 200 aditu baino gehiago ibili dira lau urtez lanean. Obra honek zientzia eta teknologiako arlo guztietako 23.000 kontzeptu, haien definizioak, dagozkien erdal terminoak (ingelesezkoa, gaztelaniazkoa eta frantsesezkoa) eta 607 artikuluko entziklopediko jasotzen ditu. "Elhuyar zientzia eta teknologiaren hiztegi entziklopedikoa" liburu formatuan eta CD-ROMean argitaratu da.

Aurkezpen ekitaldian honako hauek hartuko dute parte: Jose Mari Rodriguez Ibabe Elhuyar Fundazioko presidentea, Iñaki Goirizelaia Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea, Antton Gurrutxaga "Elhuyar zientzia eta teknologiaren hiztegi entziklopedikoa"-ren zuzendariak eta Elias Atutxa Euskadiko Kutzaren zuzendari nagusiak. Ondoren, Joan Mari Irigoien idazleak hitzaldia eskainiko du.